BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EUSKAL IRUDIGILEAK
ASOCIACIÓN PROFESIONAL DE ILUSTRADORAS/ES DE EUSKADI

**PRENTSA OHARRA**

# EUSKADIKO ILUSTRATZAILEEN ALKARTEAK BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN EGINGO DAN ERAKUSKETEAGAZ OSPATUKO DITU BERE 20 URTEAK

- **Irailaren 7tik 28ra bitartean, Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoak "EUSKAL IRUDIGILEAK 20 URTE" erakusketea jasoko dau. Erakusketa horrek, 173 lan indibidualen bidez, ilustrazinoak Euskadin mende honetan izan dauen bilakaerea, mailea eta garrantzia erakusten ditu.**

(Bilbon, 2023ko irailaren 7an) Irailaren 28ra arte, Bilboko Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoak, bere ibilpidea orain dala 20 urte hasi eban **Euskal Irudigileak** Ilustratzaileen Alkarteko kideek egindako 173 artelanez –horreetako ia berrogeta hamar jatorrizkoak– osotutako bilduma grafikoa batu dau.

Bizkaiko Batzar Nagusien, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzea dauen "EUSKAL IRUDIGILEAK 20 URTE" erakusketeak talde horretako kide bakotxaren lan bat batzen dau, azken hamarkada bietan profesional horreek euren lana egin daben arloen begirada orokorra eskeiniz.

Sorkuntza lan garrantzitsu hori bultzatzeko, kolektiboko kide ugariez eta erakundeko arduradun ohiez gain, Asier Iturralde gaur egungo jarduneko presidentea buru dala, Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria, Begoña Ibarra Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendaria eta Aitziber Atorrasagasti Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Sustapeneko zuzendaria egon dira gaur erakusketaren aurkezpen-ekitaldian. Bizkaiko Batzar Nagusiek euren erakusketa aretoa laga dabe, sarritan euren lana "ikusiezin" izaten dan "jenio" horreen lana erakusteko", gogora ekarri dau Otaduik.

Aurton eta datorren urtean Donostiara, Guadalajarara (Mexiko), Gasteizera eta Iruñera eroango dan erakusketa ibiltariaren helburuak honeek dira: ilustratzaileen lana ezagutarazotea; artisten belaunaldi desbardinentzako topagune izatea; eta sektorearen indarra azpimarratzea, toki-, nazino- eta nazinoarte-mailan. Erakusketeak, ganera, sektorea osotzen daben ahotsen aniztasuna erakutsi gura dau, protagonistak anonimotasunetik ateraz, eta euren sorkuntza-lanak egokitzen ari diran sormen-eremuak azalduz. Horren bidez, alkarteak bere 20 urteetan izan dituan mugarriak eta sektoreak bizi izan dituan aldaketa nagusiak azaldu gura dira.

Erakusketea aukera ona da Euskadin dagoan talentua ezagutzeko. Izan be, hainbat errazoi dirala medio, ikusleek ez dabe talentu hori ikusteko aukerarik izan. Holan, argitaletxeen munduak interesa biztu eta egileengan arretea jarten dauen bitartean, badagoz lan hori egiten dauenaren lana kontsumitzailearen begietatik ezkutauta dagoan ilustrazinoaren beste eremu batzuk. Erakusketa honegaz hutsune hori bete eta sortzaileei izena jarri gura jake. Horregaitik, erakusketa hau osotzen daben elementuetako batzuk Euskal Irudigileak alkarteko kideen autoerretratuakaz harilkatuta dagoz.

Urteurren honetan, alkarteko presidente guztiek kolektiboaren historia errepasetan daben liburua argitaratu da. Eta protagonisten eretxiak ezagutu daitekezan hiru saiotan banatuta *podcast*-a egin da.

*(Argazki-oina). Kartela Euskal Irudigileak alkarteko kideen autoerretratuakaz eginda dago.*

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EUSKAL IRUDIGILEAK
ASOCIACIÓN PROFESIONAL DE ILUSTRADORAS/ES DE EUSKADI

NOTA DE PRENSA

# LA ASOCIACIÓN DE ILUSTRADORES DE EUSKADI CELEBRA SUS 20 AÑOS CON UNA EXPOSICIÓN EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

- **Del 7 al 28 de septiembre, la Sala de Exposiciones de la Cámara vizcaína en Bilbao acoge la exposición "EUSKAL IRUDIGILEAK 20 URTE" que muestra a través de 173 trabajos individuales la evolución, el nivel y la importancia que la ilustración ha adquirido en Euskadi durante el presente siglo.**

(Bilbao, a 7 de septiembre de 2023) Hasta el 28 de septiembre, la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, reúne una colección gráfica con 173 obras -casi cincuenta de ellas originales- que han sido elaboradas por las y los miembros de la Asociación de Ilustradores **Euskal Irudigileak,** entidad que inició su andadura hace 20 años.

La exposición titulada "EUSKAL IRUDIGILEAK 20 URTE", que cuenta con la colaboración de las Juntas Generales de Bizkaia, la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco, reúne un trabajo por cada integrante de este colectivo, ofreciendo una mirada general en los distintos campos en los que estos profesionales han desarrollado su labor a lo largo de estas dos últimas décadas.

En apoyo a esta importante labor de creación, además de numerosos integrantes del colectivo y de antiguos responsables de la entidad, con su actual presidente en funciones al frente, Asier Iturralde, han estado presentes hoy en la puesta de largo de la muestra la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, la directora de Cultura de la Diputación foral de Bizkaia, Begoña Ibarra, y la directora de Promoción de Cultura del Gobierno Vasco, Aitziber Atorrasagasti. La Cámara vizcaína ha cedido su sala de exposiciones para mostrar el trabajo de estos "genios" artistas que ven habitualmente "invisibilizada" su labor, ha recordado Otadui.

Los objetivos de esta exposición itinerante, que a lo largo de este año y el próximo se trasladará a Donostia, Guadalajara (México), Vitoria-Gasteiz y Pamplona, son dar a conocer el trabajo de los y las ilustradoras; servir de punto de encuentro para diferentes generaciones de artistas; y poner el foco en la pujanza del sector, tanto a nivel local como nacional e internacional. La muestra pretende también mostrar la diversidad de voces que conforman el sector, sacando del anonimato a sus protagonistas, así como explicar los diferentes campos creativos en los que se están acomodando sus

creaciones. Con ella se pretende trasladar los hitos de la asociación a lo largo de sus 20 años de existencia y los principales cambios que el sector ha vivido.

La muestra es una buena oportunidad para descubrir el talento que existe en Euskadi y que, por distintas razones, no ha sido visible para el gran público en todas sus vertientes. Así, mientras el mundo editorial suele concitar el interés y se ha puesto el foco en los y las autoras, hay otros campos de la ilustración en el que la labor de quien realiza este trabajo está oculto a los ojos del consumidor. Con esta exposición se pretende rellenar este vacío y poner nombre a los y las creadoras, de ahí que parte de los elementos que conforman esta exposición están hilvanados con los autorretratos de los propios miembros de Euskal Irudigileak.

En este aniversario se ha editado también un libro en el que todas las presidencias de la asociación repasan la historia del colectivo. Y se ha llevado a cabo un *podcast,* dividido en tres sesiones, en los que se pueden ver las opiniones de las y los protagonistas.

*(Pie de foto). El cartel está elaborado con autorretratos de las y los asociados de Euskal Irudigileak.*